

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 1/2023

ERABAKIA, (...) (...) SAILAREN (...) SAILBURUORDEAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, (...)K ENPLEGUA FINKATZEKO DEITUTAKO PROZESU BATEAN PARTE HARTZEKO AUKERARI BURUZ.

1.- Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzari mezu elektronikoa bat bidali dio (...) (...) sailburuordeak, jakiteko ea egokia den berak (...) enplegu publikoa finkatzeko deitutako prozesu batean parte hartzea.

2.- Mezu elektronikoa horretan adierazten du (...)k joan den abenduan argitaratu zituela (...)ko Aldizkari Ofizialean 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion hautaketa-proben deialdiak, enplegu publikoa finkatzeko prozesuaren bidez, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitakoa betetzeko.

3.- Mezu horretan gaineratzen du eskubide-igurikimen legitimoa duela deialdiko lanpostu baterako, lanpostu hori bete baitzuen zenbait urtetan bitarteko lan-kontratu baten bidez, lanpostua betetzeko egin zen hautaketa-prozesu baten ondoren.

4.- Eskatu du Etika Publikorako Batzordeak iritzia eman dezala aipatutako finkatze-prozesuan berak parte hartzea egokia den jakiteko.

5.- Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EPBren eginkizuna da EJK aplikatzearen inguruan EAEko Administrazioiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek zein beste edozein instantziak egindako kontsultak ebatzea.

6.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren paragrafoak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- 2013ko maiatzaren 28an, Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago. Bi-helburu hauek lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko.


Horretarako, aipatu kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkieken Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezzen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- Bestalde, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazka Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen helburua da eginkizun publikoak dituztenek betebeharrak etikoak zorrotz betetzea, bai eta betebeharrak sozialak betetzea ere, gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa babestu nahi baitu, bai eta bizitza politikoan duen jardunaren gardentasuna ere.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu hau du: kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik babestu eta bermatu nahi den zerbitzari publikoaren eredia zein den azaltzea edo horri buruzko informazioa ematea. Horrez gain, testu arauemailea ere bada, eta, beraz, lege-indarrez ezartzen dira karguak funtzio publikoan jarduten duenean aintzat hartu behar dituen betebeharrak.

Ilido horretan, Etika eta Jokabide Kodeak bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (lege horretan arautzen dira kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak).



Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio hauek ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketarako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes falta subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta Etika Publikorako Batzorde honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko kargu publikodunek eta beren borondatez Kodearekin bat egiten duten parekatuek nahiz Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioen, printzipioen eta jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- Etika Publikorako Batzordeari aurkeztutako aztergaia

1.- Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitakoaren babesean, (...)k hautaketa-prozesua deitu du, enplegua finkatzeko prozesuaren bidez. Interesdunak prozesuan parte hartzeko eskubidea baliatu nahi du, eta Etika Publikorako Batzordeari kontsulta egin dio, jakin nahi duelako ea deialdiaren xede den prozesuan parte hartzeak nolabait urratzen duen Eusko Jaurlaritzako kargu publikodun izendatu zutenean onartu zuen Etika eta Jokabide Kodea, eta horri buruzko irizpena emateko eskatu dio.

Etika Publikorako Batzordeari bidali dion idazkian hauxe eskatzen du: “Etika Publikoko Batzorde horri eskatzen diot parte hartu nahi dudan lehiaketa bideratu eta aldeko ebazpena eman dezala, deialdi zehatz horri dagokionez (merezimendu-lehiaketa); izan ere, lehenago ere esan dut igurikimen funtsatu eta legitimoa dudala”.

2.- Interesdunak bidalitako idazkian berariaz adierazten ez badu ere, uste dugu EPB honi eskatzen diola adieraz dezala bateraezintasunik edo interes-gatazkarik badagoen betetzen duen kargu publikoaren eta modu zeharo pribatuan burutu nahi duen egintzaren artean; hain zuzen ere, jakin nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunek eta parekatuek administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek deitutako hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eragozpenik badagoen.

Gai horri dagokionez, Etika Publikorako Batzordeak eman du jada kontsulta honen antzeko beste batzuei buruzko iritzia (2/2015 eta 5/2016 Erabakiak), eta oinarri izango da iritzi hori kasu hau ebazteko; izan ere, modu batera edo bestera, norbanakoaren jokabideari buruzko printzipioei eta balioei eta kalitate instituzionalari buruzkoei eragiten diete.

3.- Edonola ere, agerikoa da balio eta printzipio hauek: eredugarritasunak, bikaintasunak eta integritateak, zeresan handia izan behar dutela aztergai dugun kasu hau ebazteko garaian, ez baita karguari dagozkion zereginak betetzetik eratorritako zalantza etiko bat, karguarekin zuzenean lotuta dagoena, eta, hauxe baita auzitan dagoena: interesdunak, karguan dagoen bitartean, ea egin dezakeen modu zeharo pribatuan gauzatuko lukeen jarduera bat.

4.- Kargu publiko bat betetzea eta administrazio publiko batek deitutako hautaketa-prozesu batean parte hartzea bateragarriak izateko aukerari dagokionez –karguduna txertatuta dagoen organigramakoa izan daiteke administrazio hori edo beste bat, kasu honetan gertatzen den bezala–, ez dute espresuki ezer ezartzen Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak (JKIGL) eta Etika eta Jokabide Kodeak (EJK). Hala ere, balio eta printzipioak eskaintzen dituzte bai batak eta bai besteak, eta jokabide etikorako jarraibide baliagarriak atera daitezke haietatik, aztertzen ari garen galderari erantzuteko.

5.- EJKn, "kudeaketari lotutako erantzukizunaren" printzipiotik abiatzen dira jarduera pribatuak garatzeko garaian kargu publikodunei dagozkien bateraezintasun-jarraibideak, eta horren eremuan kokatzen da 14.b) apartatuan jasotzen den "arduraldi osoa eta eskusiboa"ren oinarritzko araua. Horren arabera, kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera. Legedi aplikagarriari lotu beharrak JKIGLren III. kapitulura eramaten gaitu, hain zuzen ere bertan ezartzen baita "kargu publikodunen bateraezintasun-araubidea".

6.- JKIGLren III. kapitulua adierazpen orokor batekin hasten da, hain zuzen ere honako hau adieraziz: "Kargu publikodunek [...] arduraldi eskusiboz beteko dituzte eginkizunak". Baina 12.1 artikuluan urrats bat gehiago egiten da, eta funtsean ondorio logiko bat besterik ez den debeku hertsia bat gehitzen zaio oinarritzko arau horri: "ezin izango dute aldi berean, ez berek ezta ordezen edo ahalordetze bidez ere, ezein postu, kargu, ordezkapen, lanbide, merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industria-jardueratan aritu, publikoetan zein pribatueta, norberaren kontura edo inoren kontura izan" (12.1 art.).

7.- Alabaina, nahikoa da transkribatutako arauak kargu publiko bat betetzearekin bateraezintzat jotzen dituen jardueren zerrendaren berrikuspen labur bat egitea egiaztatzeko izaera profesionala edo merkataritza- edo industria-arloko izaera duten lanbideez ari dela eta ez, kasu honetan dagokion bezala, lanpostu publiko batera heltzeko oinarritzko eskubideen eremuko jardunez.

8.- Bai EJK-k eta bai JKIGLk diote kargu publikodunek "arduraldi osoa eta eskusiboa"ren printzipioa errespetatu behar dutela haien zereginak betetzerakoan, horixe baita Administrazio Publikoaren eta haren mendeko erakundeen eraginkortasuna bermatzeko bide egokiena; izan ere, aldi berean jarduera ekonomiko pribatu bat gauzatzeak –edozein jarduera profesional, merkataritzako jarduera edo industria-jarduera– zeregin publikoetan arreta galtzea eragin baitezake eta, horrela, kargudunaren inplikazioa gutxitu, errendimendua murriztu eta balio publikoa eratzeko egiten den ekarpenaren kalitatea gutxitu baitaiteke.

9.- Baina interesdunaren kasua desberdina da: bere asmoa ez da jarduera ekonomiko batean aritzea –jarduera profesional, merkataritzako jarduera edo industria-jarduera batean–, baizik eta denboran luzatuko ez den hautaketa-prozesu batean parte hartzea, eta hori, lehen esan dugun bezala, oinarritzko eskubide bat egikaritzearen erakusgarri izango litzateke. JKIGLk kargu publikodunei espresuki ematen badie baimena "norberaren eta familiaren ondarea administratzeko" (14.1a art.), ez dirudi arrazoizkoa denik pentsatzea motibo gutxiago dagoela Konstituzioak aitortutako eskubide bat –komunitate politiko bateko kide gisa haien ondare zibikoaren parte dena– egikaritzea onartzeko. Herritar guztiek dutenez eskubidea kargu eta enplegu publikoak eskuratzeko, administrazio publikoen hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskubidea herritar guztien ondare pertsonalaren barruan sartzen da, ondare hori pertsonaren ondasun eta eskubideen multzo bezala hartuta.

10.- Interes-gatazka gertatzeko aukerari dagokionez, lehenik eta behin gogorarazi behar da EJKren 11.2 artikulua araberako kasu honetan sortzen dela interes-gatazka: "kargu publikodun eta parekatuek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean". Antzekoa adierazten da JKIGLren 9. artikuluan; hau da, interes-gatazka izango dela "lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo zuzeneko senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan, lege honetan ezarritako eran".

11.- Bi testuak irakurrita erraz ondoriozta daiteke biek diotela interes-gatazka sortzen dela kargu publikodunek "erabakietan esku hartzen dutenean" (EJK) edo "parte hartu behar dutenean (...) erabakietan" (JKIGL), betiere honelako gaiekin lotuta: aldi berean interes orokorrak (betetzen den postuari dagozkionak) eta interes pribatuak (norberarenak, senideenak edo hirugarren pertsonenak) biltzen direnean. Gatazka sortzeko, beraz, ezinbestekoa da honako bi baldintza hauek gertatzea:

a) Kargu publikodunak erabakian esku hartzea.

b) Erabaki hori interes publikoaren eta interes pribatuaren arteko talka gertatzen den gai bati buruzkoa izatea.

12.- Kasu honetan, interes-gatazka bat sortzeko behar den aurreneko baldintza falta da, nabarmen: kargu publikodunak zuzenean esku-hartzea aldi berean interes publiko eta pribatuak biltzen dituzten gaiekin zerikusia duten "erabakietan".

13.- Hain zuzen ere, interesduna (...) Sailburuordetzako titularra da, eta Eusko Jaurlaritzaren (...) Sailean dago organikoki kokatua. Kontsultagai dugun finkatze-prozesua, berriz, beste administrazio publiko batekoa da, eta ez kontsulta-egileak betetzen duen kargu publikoa atxikita dagoen sailekoa. Disoziazio organiko garbia dago interesdunak betetzen duen kargu publikoaren eta parte hartu nahi lukeen hautaketa-prozesuak izapidetu eta ebazteko organoaren artean, eta horrek agerian jartzen du interesdunak ez daukala eragin eta ahalmenik enplegu publikoa finkatzeko deialdia kudeatu behar duten administrazio-organoren eta pertsonengan.

14.- Hortaz, bistakoa da aztergai dugun kasu honetan ez dauzkagula interes-gatazka bat gertatzeko beharrezkoak diren baldintza faktiboak, interesdunak, kargu publikodun gisa dagozkion zereginak betetzeko garaian, ez duelako inoiz ere esku hartu beharko, ez zuzenean eta ez zeharka, berak parte hartu nahi duen hautaketa-prozesua izapidetu eta ebaztearekin zerikusia duen erabakietan.

15.- Aztergai dugun kasuan legezko bateraezintasunik edo interes-gatazkarik ez dagoela argituta –inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei ere ez zaiela kalterik egiten adierazteko bidea ere ematen digu horrek–, beste gauza bat aztertu behar dugu orain: ea integritateari dagozkion jokaera eta portaerak urratzen diren kontsulta-egileak parte hartu nahi duen hautaketa-prozesuan parte hartuta. JKIGLk hauxe hartzen du integritatezat: “kargu publikodunek eta parekatutakoek atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea honako printzipio hauei: onestasanari, inpartzialtasunari, objektibotasunari eta esparru juridikoarekiko eta pertsona guztiekiko errespetuari” (5.1 art.). EJK-k, berriz, honela definitzen du integritatea: “kargu publikodunek eta parekatuek sistematikoki eta iraunkorki betetzea zintzotasun-, inpartzialtasun-, objektibotasun-, eta gardentasun-printzipioak, errespetua izatea esparru juridikoari eta ingurune publiko horretan esku hartzen duten edo harekin harremana duten pertsona guztiei (zeinahi delarik ere pertsona horien maila), eta beren eskumeneko gaien kudeaketan erantzukizun-parametroen arabera jokatzeari” (4.1.1 apartatua).

16.- EJKn, integritatearen balioa “faboritismo-susmorik” eragin gabe jarduteko beharri hertsiki lotuta agertzen da; gainera, kode horrek agintzen du ez dela erabili behar “ez erakundean duten postua, ez karguaren ondoriozko pribilegioak beren buruarentzat abantailak lortzeko edo edozein pertsona edo erakunderentzat abantailak edo desabantailak lortzeko (zuzenean edo zeharka)”, eta ez dela eraginik izan behar norberaren agindupeko kargudun edo enplegatu publikoengan, interes publikotik aldenarazi eta “haztatik zuzenean edo zeharka etekina atera dezaten beraietzat edo beste batzuentzat” (6.a), 6.b) eta 6.c) apartatuak).

17.- Gure iritziz, aztergai dugun kasuan ez dago integritate-printzipioaren urraketarik ere, kontsulta eragin duen portaera ez delako kokatzen kargu publikodunek haien zereginak betetzearen esparruan –eta hain zuzen ere esparru horretan gerta daitezke faboritismo-susmoak edo kargu publikodunei legez emandako ahalmenak faltsutzea interes orokorretik aldendu eta norberaren edo hirugarren baten interes partikularren alde jokatzeko–. Interesdunak kontsultan aipatzen duen hautaketa-prozesuan parte hartzen badu, ez du sailburuorde gisa parte hartuko, modu partikularrean baizik, Konstituzioak herritar guztiei modu berdinean aitortzen dien eskubide bat baliatuz.

18.- Postu instituzionalaz edo karguaren ondoriozko pribilegioez baliatu eta zuzenean edo zeharka norberarentzat abantailak lortzeko arriskuari dagokionez, gogorarazi beharra dago kontsulta-egileak betetzen duen karguak ezin duela eragin parte hartu nahi duen hautaketa-prozesuaren garapenean, ez organikoki eta ez materialki. Gaintontzean, kargu publikodunek haien zereginetan jarduteko modua gidatzen du integritatearen balioak. Eta, kasu honetan, esan bezala, oinarritzko eskubide batez baliatuz gauzatu nahi den esku-hartze partikular baten aurrean gaude.


19.- Esku artean daukagun kasuak EJKren beste printzipio bati ere eragin diezaiokie; eredugarritasunaren printzipioari, hain zuzen ere. Kodeak hauxe dio eredugarritasunaz, 5.2.9 apartatuan: "kargu publikodunak, eta, bereziki, gobernu- edo erakunde-egituretan postu nagusiren bat betetzen dutenak, erakundearen ispilua dira, herritarrei eta erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsoneri erakundearen irudia itzultzen dietenak, eta, horregatik, ez dute ezer egin behar edo egin gabe utzi behar baldin eta horrek kalte egiten badio Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari (ezta kalte oso txikia izanda ere). Hartara, ez da gutxituko herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza".

20.- EJK-k eredugarritasun-printzipioaren esparruan (15. atala) agintzen eta debekatzen dituen jokabideak kargu publikodunak bere eginkizunak betetzean duen portaerari buruzkoak ere badira. Baina kargu publikoen titularrek izan beharreko portaerei dagokienez, badaude haien kargua betetzearekin printzipioz zuzenean lotuta ez dauden portaerei eragiten dieten debekuak ere; honako hauek hain zuzen ere:

a) Kargu organikoak zein kudeaketa-karguak betetzea fundazio, elkarte nahiz bestelako erakundeetan, litekeena baldin bada haien helburuak eta funtzioen xede diren interes publikoak aurkakoak izatea edota interesen arteko gatazka sor badaiteke.

b) Zuzenean zein zeharka nolabaiteko ordainsari edo konpentsazio ekonomikoa dakarten irratiko hizketaldietan edo telebistako eztabaidetan parte hartzea.

c) Edozein hedabidetako eztabaida eta gogoeta-prozesuetan edo ekitaldi publikoetan parte hartzea gobernuaren berezko jarreratik aldentzen den jarrera agertuz, salbu eta garrantzirik gabeko gaiak edo iritzi pertsonalak badira eta, horrenbestez, gobernuaren politikarekin zerikusirik ez dutela adierazten bada.



d) Gobernuaren edo goragoako kargu publikodunaren baimenik gabe hedabideetan parte hartzea, eduki neutralei buruzko elkarrizketa zein erreportajeetan izan ezik.

e) Betetzen duten karguaren ondorioz liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan eta beste edozein hedabideetan ekarpenak egiteagatik ordainketak onartzea, baldin eta ekarpen horiek haien funtzioak betetzearekin lotuta badaude.

Ikus daitekeenez, EJK-k eredugarritasunaren printzipioaren esparruan berariaz debekatzen dituen jokabideen zerrendan ez dago langileak hautatzeko prozesuetan parte hartzearena. Are gehiago, ez da ikusten EJK-k zehatz-mehatz ezartzen dituen debeku horietako bakar batek ere parte-hartze horri eragin diezaiokeenik. Kontsultagai dugun jokaera ezin da zuzenean edo analogikoki sartu kodeak galarazten dituen jokabideen katalogoan, transkribatu dugun katalogo horretan, alegia.

21.- Bikaintasun-balioari dagokionez, hauxe dio EJKren 4.1.2 apartatuak: "Bikaintasunaren balioak berekin dakar inplikatzera eta etengabeko hobekuntzarako ahalegina egitea, herritarren eskakizun guztiei erantzun ahal izateko erabaki publikoetan eta ematen diren zerbitzu publikoetan. Horretarako, eraginkortasunez jokatu behar da, eta saiatu behar da bat etor daitezen erakundean lan egiten duten pertsonen helburuak, baita teknologiei eta prozesuei dagokienez ere".

EJK-k, 7. apartatuan, bikaintasuna dela-eta agintzen dituen portaera eta jokabideak kargua betetzearekin daude lotuta beste behin ere; hau da, kargua betetzeko garaian inplikazio handiagoa izateko, etengabeko ahalegina egiteko eta kalitatea hobetzeko daude pentsatuta.

22.- 7. apartatuko bost idatzi-zatietan, kargu publikodunek erakutsi beharreko jarrera eta portaera positiboak ezartzen dira. Hain zuzen ere, honelakoak aipatzen dira: "bete beharko dituzte", "izan behar da xede nagusia", "izango da haien jardunaren helburua", "garatu beharko dituzte" eta "konpromisoa hartuko dute". Baina ez dira aipatzen zein diren bikaintasunarekin bateraezinak diren jarduerak. Eta, jakina, ez da inolaz ere esaten hautaketa-prozesu batean parte hartzea bateraezina denik kargu publikodunei haien jardunean eskatzen zaien bikaintasunarekin.

Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek aho batez erabaki hau hartu du:



ERABAKIA:

1.- Kontsulta-egileak ez duela Etika eta Jokabide Kodea urratzen (...)k enplegu publikoa finkatzeko prozesuaren bidez deitutako hautaketa-probetan parte hartuta. Kontsulta-egileak parte hartu nahi duen hautaketa-prozesua bere eginkizunak betetzen dituen administrazio publikoa ez den beste batek deitu izanak errotik baztertzen du balizko interes-gatazka.

Olatz Garamendi Landa
Etika Publikorako Batzordeko burua
Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 16a.